

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIt). 2014ko 1. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,1 gutxitu ziren 2014ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,7 nominala jaitsi da

Eustatek emandako datuen arabera, 2014ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,1 murriztu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneousetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %0,5 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,7 nominala jaitsi da, urtaroteginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. I / 2014(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-1,1	-0,7	-2,0	-0,9
Araba	-0,6	0,3	-2,0	-0,2
Bizkaia	-1,6	-1,5	-2,5	-1,5
Gipuzkoa	-0,6	0,2	-1,1	-0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-3,4	-2,2	-4,2	-2,5
Elikagaietan espezializatuta	-2,4	-3,4	-3,3	-3,9
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-3,9	-0,7	-4,3	-1,1
Beste produktuak	1,8	-0,8	0,1	-0,5
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	6,1	-0,3	1,1	-0,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	1,7	1,7	2,7	1,9
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-2,3	-5,2	-2,8	-5,3
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-1,7	-1,2	-2,5	-1,9
Automoziorako erregaia	-5,0	0,0	-3,7	0,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-0,5	-1,4	-1,8	-1,4
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-3,1	-1,5	0,0	0,0

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: Eustat. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmenta nominalak %3,4 murriztu ziren 2014ko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %1,8 gehitu zen eta Automobilgintzarako erregaian %5,0 jaitsi, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %2,4 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %3,9. Gainerako produktuen txikizkakoan, gehikuntzak: Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan (%6,1), Etxeako ekipamenduan (%1,7). Jaitsierak: Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan (%-2,3); Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan (%-1,7).


2014ko lehen hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,6 murriztu dira Bizkaian urte artean; Araban eta Gipuzkoan %0,6.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,0 murriztu ziren lehen hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,8ko jaitsiera erreala izan dute 2013ko hiruhileko beraren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %4,2 izan zen; Gainerako produktuetan %0,1 igo, 2013ko hiruhileko beraren aldean, eta Automobilgintzarako erregai-salmentetan %3,7ko jaitsiera prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-3,3 dugu espezializatuan termino errealean; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-4,3. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %1,1eko igoera eta Etxeko ekipamenduan %2,7; Kontsumoko beste ondasunetan %-2,8 eta Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-2,5.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak salmentetan termino errealean: Bizkaian %-2,5, Gipuzkoan %-1,1, Araban %-2,0.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,9ko jaitciera dago aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2013ko laugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %1,5 murriztu zen 2014ko lehen hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua